Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aizarnazabal



Aurkibidea

Udalerria: Aizarnazabal

Sarrera



Urola Kosta eskualdean kokaturik dagoen herria da. Iparraldean Zumaia, hego eta mendebaldean Zestoa eta ekialdean Aiarekin egiten du muga Aizarnazabalek. 1845ean, Zumaiatik bereiztea lortu zuten. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak**: 530
- **Euskaldunak**: %95,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **17**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **5**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak

Hizlariak



Unai Egaña Urkizu *Altuna* (1986)

Unai Egaña, *Altuna,* Aizarnazabaleko herri-kirolaria da. Idi-probetan ibiltzen da, aitona bezala, eta gai honen inguruan hitz egin du: entreamenduak, idiaren zaintza, txapelketak...

Agustina Elustondo Martija (1930-2015)



Zestoako Arbe baserrian jaio zen, 10 senidetan hirugarrena. Ama azkoitiarra zen eta aita, berriz, Arbekoa. Komunioa egin arte Aizarnazabalgo eskolara joan zen, eta gero, Urdanetan apaizarekin aritu zen dotrina ikasten. Zarauzko jostundegi batean ikasi zuen josten. 25 urte zituela, Antonio Iriondorekin ezkondu eta Bekola baserrira joan zen bizitzera. Hiru seme-alabaren ama da.

Joakina Etxabe Manterola (1937)



Aizarnazabalgo Zehatz auzoko Sarasola baserrian jaio zen. Aita herrikoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Aiakoa. Bederatzi senidetan bigarrena da bera. Batez ere, baserriko kontuak eta ohiturak kontatzen dizkigu. Garai bateko bizimodua zehaztasun handiz gogoratzen du, miseria handia zegoela dio, kalean baserrian baino handiagoa. Elizako eta apaizen kontu asko kontatzen ditu, eta lehen jendea elizara obligazioz joaten zela esaten du. 21 urte zituela, Oikiako (Zumaia) Joan Mari Iruretagoienarekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten.

Joxe Etxabe Zulaika (1941)



Zestoako Txiriboga auzoan jaioa, udalerriz Zestoa, baina elizaz Aizarnazabal. Bizi guztia Aizarnazabalen igaro du. Emaztea ere Aizarnazabalgoa du.

Joseba Etxeberria Etxabe (1989)



Joseba Etxeberria, Aizarnazabalen jaiotako erremontari profesionala da. Umetatik aritu da eskupilotan eta zesta-puntan jokatzen Zumaian, baina azken hau utzi zuen ez zuelako Estatu Batuetan karrera egin nahi. 2006an hasi zen erremontean jokatzen hamasei urterekin eta 2008tik profesional gisa ari da.

Antonio Iriondo Barrena (1931-2017)



Aizarnazabalgo Bekola baserrian jaio zen, lau senidetan zaharrena. Aita Mutrikukoa zuen, eta ama, berriz, Bekola bertakoa. Aizarnazabalen eta Zestoako "hermanotan" egin zituen oinarrizko ikasketak. Baserri atarian zerrategia zuten, baita errota ere, eta izaten zen non lan egin. 19 urte zituela, etxeko nagusiak, gurasoekin elkar hartuta, Elgoibarrera bidali zuen ikastera. Han, zerrak zorrozten eta egurra neurtzen ikasi zuen. 46 urtean aritu da basoak tasatzen, egurrak eta tabloiak neurtzen... Gipuzkoa osoan zehar. Gaztetatik izan du bertsotarako zaletasuna. Agustina Elustondorekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Josefina Korta Unanue (1930)



Aizarnazabalgo Zubialde auzoko Batistaenea etxean jaioa. Gurasoak ere herrikoak zituen eta sei senidetan bosgarrena da bera. Etxean bertan, goiko pisuan, bizi zen Zubialde auzoko maistra eta Josefinak hantxe egin zituen ikasketak. Oso gaztetxo zela Zarautza joan zen neskame eta handik Irungo hotel batera; hiru hilabetez behin edo itzultzen zen etxera bisitan. Irunen frantsesa ikasi behar izan zuen hoteleko bezeroekin komunikatzeko. Martin Zubizarretarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Luisa Larrañaga Albisu (1918)



Udalez Zestoako parte den, baina elizaz eta hurbiltasunez Aizarnazabalgoa den Goikoetxeta baserrian jaio zen. 12 senidetan zortzigarrena da Luisa. Aita zestoarra zuen eta ama Lasturkoa. Baserrian lan asko izaten omen zuten bera txikia zenean eta eguraldi txarra egiten zuenetan bakarrik (baserrian lanik egin ezin zenetan) oinutsik joaten omen ziren eskolara. Bederatzi urtetarako neskame joan zen Zarautza. Gerra garaian, anaia mina-zuloan gordeta eduki zuen Luisak eta berak eramaten omen zion janaria egunero-egunero; ozta-ozta libratu omen zen. Bizimodu gogorra pasatu duela dio. Ezkondu eta denbora gutxira Aizarnazabalgo Zubialde auzora joan zen bizitzera; han bizi izan zen ordutik. Zortzi seme-alabaren ama da.

Nikolas Lazkano Etxaniz (1933)



1933an jaio zen Aizarnazabalgo Rezustagoikoa baserrian. 10 senidetan zortzigarrena da. Ama herrikoa bertakoa zuen eta aita Arroakoa (Zestoa); hau Nikolasek hamaika hilabete zituela hil zen eta ama berriz ezkondu eta azken bi haurrak izan zituen. Gerra ondorengo garaiak ongi gogoratzen ditu, eta elizako istorio ugari kontatzen dizkigu: garai bateko errezuak, kanpaiak, konfesioak... zehaztasun handiz kontatzen ditu. Lehen dena pekatu omen zen: dantzatzea, musu ematea... 1960. urtean Rita Odriozolarekin ezkondu eta hiru seme izan zituzten.

Xixili Manzisidor Irastorza (1920-2014)



Aiako Altzola auzoko Nebera baserrian jaio zen; maizterrak ziren eta markes batena omen zen etxea. Bederatzi senidetan zaharrena da Xixili. Lan ugari egina da baserrian: ardizain, behiak jezten, soroan, artoa jorratzen... Gerra garaian gaztetxoa zen eta ordurako Manuel Olaizolarekin (ondoren bere senar izango zena) zebilen. Manuelek alde egin behar izan zuen eta itzuli zenean ezkondu ziren, Xixilik 21 urte egin baino lehentxeago. Ezkondu eta Aizarnazabalgo Sarasolaberri baserrian jarri ziren bizitzen, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Rita Odriozola Barrena (1931)



Aizarnazabalgo Azpiko baserrian jaioa. Aita baserri hartakoa bertakoa zuen, eta ama, berriz, Bekola baserrikoa. Sei senidetan zaharrena da Rita. Aizarnazabalgo istorio ugari kontatzen ditu (eskabetxeria zegoenekoa, udaletxea erre zenekoa, gerra ondorena, baserriko kontuak...) eta zehaztasun handiz gogoratzen ditu gertaeren datak. Gazte garaian, dena pekatu zela esaten du; balsean aritzea asko gustatzen eta neskekin aritzen omen zen mutilekin aritzea ez zelako libre. Garai batean, beldur handiarekin bizitzen zela dio. 1960. urtean, Aizarnazabalgo Nikolas Lazkanorekin ezkondu zen, eta hiru semeren ama da.

Axun Odriozola Txurruka (1923)



Aizarnazabalgo Zubialde auzoko Pikatza baserrian jaio zen. Ama mutrikuarra zuen eta aita Pikatza bertakoa. Aita perratzailea zuen, eta, astea kanpoan pasatzen zuenez, morroia izaten zuten etxean baserriko lanetan laguntzeko. Hiru senidetan gazteena da bera. Eskolako kontu ugari kontatzen ditu, eta elizakoak ere bai. Umore handiz kontatzen ditu garai bateko kontuak. Etxekoandre izateaz gain, jostun lanak ere egiten zituen. Aizarnazabalgo Jesus Olaizolarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen.

Mari Kruz Sagarna Olazkoaga (1930)



Aizarnazabalgo Etxabe auzoko Zubiaurre baserrian jaio, hazi eta bizi izan da. 13 seme-alabatan zazpigarrena, umetatik baserriko lanetan lagundu behar izan zuen. Zubialde auzoan ibili zen eskolan. 11 urte zituela joan zen Zarautzera neskame, eta lau urtez egon zen han. Gero, Hernanin ere ibili zen neskame lanetan. Baserrira bueltatu zenean, goizetan etxeko lanetan laguntzen zuen; eta arratsaldetan, berriz, Zarautzera joaten zen, Aizarnazabaldik oinez, josten ikastera. Luis Bereziartua errezildarrarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. San Migel jaiak

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Zulaika, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIZ-001/010
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Jaiak San Migeletan, irailean, eta maiatzaren 8an "San Migel txiki". Irailean 4-5 egun izaten dira, eta festa politak izaten ziren. Lehen dena egunez izaten zen: mezak, bertsolariak, ganadu-probak, ahari-jokoak... Arratsaldez erromeria izaten zen, eta inguruko herrietatik jende asko etortzen zen.

Transkripzioa
- Eta, beste kontu bat, hemen, Aizarnazabalen, jaiak eta noiz izaten dia?

- Bai, Setienbrian, ta San Migeletan.
- San Migelak.
- San Migelak, bai. Ta maiatza zortziyan esaten zaio San Migel txiki, o. Hor eun batekua o hola izaten da, bat o bi. Eta geo, San Migel haundiyan, iraillan hogeita beatziyan, ba, izaten dia zean, bost bat eun, lau, seun nola tokatzen dan. Bai, ta oso festa polittak itten dittue.
- Eta? Nolakuak izaten zian lehen? Antzera izaten da oain eta lehen?
- Ez, ez, ez. Oain gabian dao festa. Lehen itten zan arratsaldian, ta oain gabaz. Baiña leheno ez, leheno itten zan, igual eunen ta biarrenen ta meza. Ta geo meza ondorenen, ba, bertsolai batzuk, eo, zea batzuk hola. Ta lehen izaten zian ganau-pobak eta ahari-jokuak 'e bai, ta. Hola, ikus-festa, zea. Eta geo arratsaldian erromeia hasi ta gabian hamarretan bukau. Ta, kanpotikan ta jende asko etortzen zan, hemen Oikiya, Zestuan ta.
- Bai, e?
- Bai. Ta geo erromeian 'e oain dana orkestina holakua dao. Ba, ordun ez, ordun izaten zan soiñu-jotzaille bat eta geo izaten zan, aurrena izaten zan San Migel euna ta biarrena udaletxiak jartzen ziun, ta geo Ama Birjiñan aurreneko jaia. Geo, itten zuen mutillak, Luixtarrak o zeatzen zian, ordun kongregaziyua eoten zan elizan. Geo, izaten zan mutillan festa, ta geo neskana, orduan jaien.
- Eta, ze izaten zan mutillen jaia ta?
- Festa, jaia, ezer ez, erromeia. Erromeia bakarrik, bai.
- Bazkaririk, bazkaririk eta iten zan, holan kuadrillan edo?
- Ez, ez. Ez. Bazkaiak itten zian San Migeletan, jaien, igandian, aurrenengo igandian. Ama Birjiña errosaiuko eunen, ba, gonbirauak eta, hori 're bai. Baiño geo ya ez, geo lau jaietan izaten zian mutillana, geo neskana, ta geo errekakua o esaten giñona, zea, barrio Txiriboga horkua.
- Txiriboga.
- Bai, hor.
- Eta hori noiz izaten zan?
- Segiran.
- Segiran.
- Bai. San Migeletan in, hasi, eta lau igandetan segiran.
- Eta esan dezu, idi-probak eta izaten ziala, ganao-probak?
- Bai, ganao-probak, ta izaten zian, hola, premiyo batzuk eta jartzen zuen, ta geo bertsolaiak. Mezetatik erten eta bertso batzuk eta, tertuliyan, ta, txakolin batzuk ean, ta.

1.2. Aizarnazabal inguruko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Zulaika, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIZ-001/016
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:36:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena**: Gaztetan inguruko herrietako jaietan ibiltzen ziren: Zestoa, Urdaneta... Zestoan Ama Birjinatan, Oikian San Bartolometan, Aizarnak ere abuztuaren 15ean, Urdanetan San Martinetan, Altzolan San Roman egunean...

Transkripzioa
- Ta, zuek, e, gaztetan eta, ba, jai-egunetan eta, bertan Aizarnazabalen izaten ziñaten edo, ba, ez dakit, Zarautza o Zestua aldea ta juteko?
- Ez. Bai, Zarautza gutxi, Zarautza gutxi. Gehienen hemen Oikiya zean, Iraeta ta inguruko zeatan. Geo, Urdaneta, Aizarna, hemen bueltako zea habeta.
- Erromerieta.
- Bai, Erromeia.
- Ta nun izaten zian erromeiak?
- Erromeiak? Ba, iten zian, ba, plazan, herriko, zea, baillarako plazatan.
- Hemenguan 'e bai?
- Hemen 'e bai, ta.
- Jaiero?
- Ez, ez. Herriko festetan [...], jaiero ez. Jaietan, ba, gaztiak giñanen, ba, bezpereta etorri ta, pelotan in ta, holaxe. Eo saltaka eo [...]. Etortzen ez bagiñan, ba, igual bi o hiru basarriko zeak juntatu basarri baten, eta hantxen jolasen ein ta illuntzea arte, ta. Illundutakuan afaldu ta ohera. Gaztiak, txikiyak giñanen, ta geo gogortu giñanen, ba, baten ta besten, ta, gehixio pixkana-pixkanaka. Baiña Zestuan 'e Ama Birjiñetan ta, Oikiyan 'e San Bartolometan izaten zian [lau bat] jaittan, eo, ta Urdanetan San Martiñetan, ta.
- Bai, azo asko dia hamen inguruan...
- Bai, bai, bai, auzuak bai.
- ...[...], ta Arrua, ta...
- Bai.
- ...Aizarna.
- Aizarna 're abuztuan, udaan, Ama Birjiñetan, hamabostian, horrea ta. Geo hemen, zean, San Migeletan, esan deun lehen bezela, ta geo Urdanetan San Martiñetan, ta ya, ya hor bukatzen zian.
- [...]
- San Martiñak eta geo Altzola bada, han bazan, oain ez det uste iñor bizi danik han, Altzolan 'e San Roman eguna o, han eun bat o bi itten zian, eo hiru bat. Hara ta.
- Jairik ez zan falta izaten.
- Ez, udan o zean partian ta ez. Beti izaten zan. Batea o bestea, o.

2. Baserria

2.1. Ganadu-probetarako zaletasun handia herrian; herri-kirolak Aizarnazabalen

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Zulaika, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIZ-001/011
- **Iraupena**: 0:05:40. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Ganadu-probetarako zaletasun handia zegoen herri guztian. Baserri guztietan zeuden idiak. Idi-probak plazan bertan izaten

ziren, bertako galtzadan. Ahari-jokoak ere jokatzen ziren, baina ez horrenbeste; Azpeitian gehiago. Harri-jasotzaileak eta aizkolariak ere baziren herrian, baina afizionatu mailakoak. Korrikalariak asko izaten ziren, eta nahiko onak.

Transkripzioa

- Eta, afizio handia izaten zan ganao-probatara, ta? Hemen inguruan?
- Bai, bai. Oaiñ 'e pixkat badao, baiña ordun gehio zan, ordun, bai. Ordun iya etxe danetan zaben iriyak.
- Bai, e?
- Bai. Basarrittan, ta geo negun proba jokatzen zuen batai ta bestiai ta. [...], ta geo premiyua jartzen ziyoen, ta.
- Eta bertako inguruko [...] izaten zan.
- Bertako, ingurun, bai, ordun, bertako ingurukuak. Ingurua ez, auzua auzuakin, ta, bueno, pixkat, bakizu. Tabernan ta pixkat txikito batzuk eanda eaman ta pixkat txispatutakon, ta, zeatu ziyon, ta, ba, "Hiriak baiño neriak hobiak dittuk", o hau o hori, o, ta.
- Apostu batzuk jokatu, ta...
- Apostu batzuk jokatu, ta, ordun, ba, bost duro, ta zean, ta hola dirua moitu, jokatu, ta... Zan, ba, bueno ondo, zea izaten zan, garai hartako.
- Eta...
- Eta geo arra..., geo arratsalden, ba, etortzen zan, ba, soiñu-jotzaillia.
- Eta idi-probak eta nun izaten zian?
- Hortxe, plazan, hor dao plaza, bai.
- Bertan.
- Bai, plaza dao galtzaa, esaten da hori, galtzaa bat. Eta galtzaan izaten dia, eta oaiñ 'e izaten dia, e! Bai, oaiñ 'e urten bi aldiz izaten dia, ta geo, geo alkarri jokatzen diyo. Oaiñ 'e laixte bat bado bat, bai, hill honen, ez dakit, azkenaldea o, bai.
- Eta, e, izango zan herriyan, ba...
- Anbientia?
- Ez, e, ganau-probetan eta ona zana?
- A, bai, jende asko...
- O basarrin bat, eo?
- Bai, jende asko juten zan, jende asko juten zan, oain baiño gutxixio jokatu 're igual, baiña. Ta jende asko juten zan ba, beti, bakizu, baten aldian, bestian. Ta, bueno, "hala jokatzen omen dik", eta, "ikusi in behar dixkiu", ta.
- Eta onena zein izaten zan?
- E?
- Onena ze baserri izaten zan?
- A!
- Edo, este, ez zan izaten...
- Ez zan izaten holakoik. Hemen eon zan iri famatu bat, eta, zea, [...] o esaten ziyoena, oso ona. Bai [...] bi eo euki zittuen oso onak. Eta hemen Altunan ta, bai, baserri haundi samar hoiek, ba, ganaua 're...
- Gehio.
- Gehio, ta gobernau 're hobeto, eo haundiyauak 'e bai ta, ba, hortxe, hoiek zian famauak. Geo, lehen esan deuna, zea, Sarasolako zea horrek 'e bai, horrek 'e ganau onak ateatzen zitun. Joxe Antonio Etxabe o, ehun ta bat urte... Hori 're probagiña zan.
- Bera?
- Bai. Ta, gehio 're bai. Hortxe, bat han ta bestia han ta, baiña, hola. Hoiek, destakatzekuak hoiek.
- Iriyak izaten zian o behiak?

- Ez, iriyak, jenealian iriyak, bai, iriyak.
- Eta, ahari, ahari-probarik eta izaten zan?
- Bai, ahari-jokua, bai. Ahari-jokua izaten zan. Bai, baiña gutxiyo. Hemen ahari-jokua asko jokatzen da Azpeitiyan, baiña hamen bertan 'e bai, hola, jokatzen zan. Batzutan proba ondorenen ta bestetan arratsalden ta jokatzen zian.
- Ganadu-probak gehio.
- Bai, ganau-probak gehio, ta geo danen eoten zan, ta ahariyak 'e, ba, bai, [...], ta probatzeko, ta.
- Eta bertan herriyan, e, harrijasotzaillerik, edo, ba, e, aizkolaririk edo izan al da?
- Ez, afizionatuak eta bai, ezautu dittut nik, baiña ez, hola esateko profesionalmente on-onikan ez, ez, [...].
- Ez.
- Hola, afiziyo pixkat eta dunak eta bai, bazian, baiña bestela hola zeaik ez. Harri jasotzen ta aixkolairik eta... Afizionau maillan ta pixkat zeatzen zian, ta ibiltzen zian ta, baiña ez, bestela ez. Aixkolairik eta...
- Eta...
- ...ez dao hemen.
- Eta beste herri-kirolik, e, oillar-borrokarik, o?
- Ez.
- Horrelakorik ezautu dezu?
- Oillar-borrokaik eta ez det nik hemen ezautu.
- Ez, e?
- Ez. Gaiñuntzen, hola... Geo Santa [...] izaten zian, bertako herriko, bai, hola, San Migel festetan ta, bertako herriko mutillantzat, eta beti jartzen zuen, udaletxiak o premiyua jartzen zun zeoze ta, bai. Eta bastante zea eoten zan. Itten zuen hor betikan bueltan, bai. Korrikai zeak ez zian zeak, profesionalak, baiña bastante korrika ondo itten zuen mutillak bazaben, baiña...
- Hemen Azpeitiya nahiko gertu daukazue, ta, Azpeitiyan...
- Bai...
- ...beti izan da horretarako...
- Bai...
- ...afiziyua, ez?
- [...] eta ahariak, eta...
- Ahariya Azpeitiyan asko. Ta hemen ahari, ahari zalia oain gehio dao ordun baiño. Ordun 'e bai baserrin ta eoten zian ahariyak eta, ta ardiyak 'e danian ta. Oain gehio prepaatzen dittue, ta gehio dabe uain ahari-zaliak, hemen bertan 'e, hola. Ez itxez itxe, baizikan, ba, jarri ikuilluak eta prepaatuta ta, igual ingo dittue etxe baten, ba, hamar-hamabost eo. Ta beste baten igual zazpi-zortzi, ta. Hola dabe. Ba, itten dittue oain prepaatu lehen baiño hobeto. Lehen pentsua eman ta, gobernau ta, itten zittuen, baiña zeaik gabe, oain bezela ibilli ta makinak ibiltzeko ta, zeago. Zea da, pixkat [...]. Oain deporte danian uste det nik zeatzen dala askoz, marka hobiak itten dittue. Ba, leheno, bai, prepaatzen zan pixkat, baiña, geo udaan ta ez zan eozein mouz prepaatzen 'e. Bakizu, lanak [...] ta, negun ta pixkat prepaatu ta, bueno.

3. Familia eta harremanak

3.1. Urtain

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Zulaika, Joxe

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIZ-001/012
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Urtain oso ezaguna zen Aizarnazabalen. Jaietan askotan izaten zen bertan; joera handia zuen. Gizon ona zen, jatorra, indarra galanki eta parrandista samarra. Kontratista batzuek ikusi zuten Urtainek indar asko zuela, eta beraiek bultzatu zuten boxeora. Teknikoki txarra zen, baina indarra sobra. Ibiñarrieta auzokoa zen, udaletxez Zestoa, baina elizaz Aizarnazabal.

Transkripzioa

- Hemen inguruan ezaguna Urtain izango zan?
- Bai, Urtain.
- Ezautu zendun?
- Bai, bai, asko gaiñea. Asko ibiltzen giñan hola, iñoiz afaittan ta elkarrekin ta 're bai, geo haik eta boseon hasi zan arte. Bai, Manuel. Asko ibiltzen giñan hor afaittan, ta. Orduan eitten gendun, erromeia itten zan, guk [...] hamarretan. Hamarretan erromeia bukau ta ordun guk itten gendun ba, afaltzea, ba, zean batea, taberna batea. Hor behian 'e bazeon Bar Maria o esaten zitzaiona, [...], eta bestian, bestalden Bar Siete, o. Ta harea 're askotan juten giñan. Ta hua 're asko ibiltzen zan han, bai. Laun-launak ez giñan, baiña ezaun haundiyak, eta elkarrekin ta hola iñoiz ibili izan giñan.
- Ta gaiñea ezaguna izango zan, ez?
- Bai, bai. Hemen dana... Hua asko ibiltzen zan honea, honea joera haundiya zun, honeakua.
- Jaietan?
- Jai ta aste ta [...] zanen, ta. Bai.
- Eta, nolakoa zan bera?
- Bea oso ona zan. Oso mutil ona zan. Indarra galanki, ta pixkat juergista, parrandista 're bai. Bai, zea zan, bestela bihotz oneko zea zan. Eta baakizu, sasoia ta indarra ta, ezin, ezin, errendi-ezintza hori bazun pixkat, baiña bestela oso jatorra zan.
- Eta indarra? Izugarriya.
- Ta karta jokuan ta hasitakon oso zea, ta. Indarrez sobre. Bai, indarrez, ez dao. Geo laun arteko zea zan. Geo hasi zan boseuan ta akabo, galdu zan hemengo zea.
- Eta, nola izan zan, e, herri-kiroletatik, harri, harri-jasotzetik, e, boxeora pasatzia ta?
- Hori pasatzia, nik hola, ondo-ondo esateko ez dakit, baiña gutxi gorabehera, ba, hoi zan, hor Donostin zaben Lizarazu ta, kontratistak. Eta geo, hor, Hotel Orli-ko nausiya. Geo, nola zan beste bat, Sabadell eo esaten ziyena 're. Ta hoiek dirua manejatzen zuen, ta nonbaitt hoiek in zuen. Ta geo, hemen eon zan beste bat, Ixidro esaten [...], haien launa, hemen [Miruikua] baserrikua, eta haren bittartez. Ta harrek indar asko zakala, ta "probatu in behar giñukek", eta. Prueban ta hartu zuen ta, indar asko nola zun, baiña ez zan gaztetan zeauta bezela. Eta nik ikusi nun aurrenengo konbatia zean jokatu zun, Villafrancan, Santiyo bezpean, hantxe giñan ikusten, ta bueno, aurreneko bosealaiak ez zeukan, ez zekan koloreikan. Pixkat zeatzen zan, ta firti-farta, indarra jarri, ta...
- Teknika gutxi.
- Bai, teknika gutxi, oso gutxi. Baiña jotzen, harrapatzen zuna jata, buf...

- Apurtu.
- Txahala bezela botatzen zun, bai, indar askokua zan. Hua gaztetan ta zeatu izan balitz, ta, baiña. Beti dao zeoze, ta. Bai, hoiek danak hemen, ta hoiek hemen bataiautakuak dia danak.
- Aizarnazabalen?
- Bai, hoiek 'e gu bezelaxe Zestuko parte itten dia udaletxez, baiña elizaz ta honea, Aizarnazabala.
- Nunguak zian, ba? Ze auzotakuak?
- Hementxe, [Ibiñarrittakuak].
- [Ibiñarrietakuek]?
- Bai, hemendikan bi kilometro...
- Pentsatzen nun Arruakuak ziala.
- Bai, ba, [Ibiñarritta] ta Arrua, auzuak.

4. Euskara

4.1. Aizarnazabalgo euskara eta ingurukoa

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Zulaika, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIZ-001/017
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:36:40. **Bukatu**: 00:38:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Aizarnazabalgo euskara eta ingurukoa nahiko antzekoa da: Aizarna, Zestoa, Urdaneta, Aia, Zarautz... Behin Itziartik aurrera eta Azpeitia-Azkoitian, zertxobait aldatzen da, baina inguru guztian antzera. Baita Getarian ere.

Transkripzioa
- Eta, beste, beste galdera bat ya bukatzeko... E, euskera aldetik eta, zuek, e, nabaritzen dezue alderik, ba, Zestuko euskera, edo, Zarautzekua, zuena...
- Ez, ez.
- Zuen inguruko euskera zer da, gutxi gorabehera antzerakua?
- Bai, bai, bai. Hemen antzekua, bai. Oain pixkat erten ezkeo, Itziarrea ezkeo, behin Zumaiatik horrea 're bai. Baiña hemen Aizarna, zea, ta habetan igualtsua.
- Hemendik Urdanetara, ta?
- Bai, igualtsua. Ta Aia 're bai, igualtsu. Ta, baiña, horrea jo ezkeo, Bizkai aldea, horrea, ya Zumaiatikan Itziar, Deba, horrea ezkeo, ya difeente pixkat. Geo aurrea ez dao, Ondarru ta hoiek 'e sartzen zian horko zea pixkat...
- Baiño...
- ...hemen bertan. Azkoitin 'e bai, e? Ta Azpeitik 'e badake hola bere zea bat. Baiña hemen, Aizarna eta Arrua ta Iraeta ta, habek ez, habek igualtsu. Igualtsu.
- Eta Zarautzen?
- Zarautzen 'e bai, igualtsu. Zarautza ta Aia ta Oriyo ta habek hemengo moun.
- Zuek ez dezue zarauztar bat entzun, ta ez dezue esaten, "a, hau zarauztarra dek!".

- Ez, ez, ez. Ez, hola zeatzeko ez behintzat. Horrea zeatu ezkeo, beste aldea bai, baiña hemen, hola, behiñ 'e. Azpeitikua 're bai, Azpeitikua oso nabarmana da, eta Azkoitikua...
- Eta Getarikua?
- Ez, Getarikua 're hemengo moukua, bai, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aizarnazabalgo eskolak (AIZ-001/002)

Txiriboga auzoan jaioa (lurrez Zestoa). Eskolara Aizarnazabalera etortzen ziren. Eskola urrun zuten, eta askotan ez ziren etortzen. Hasieran Zubialden zegoen eskola; gero goian egin zuten.

2. Komunio handia eta txikia (AIZ-001/004)

Komunio handia eta txikia. Handia gustatzen zitzaien, berezia zelako. Zazpi urterekin egiten zen komunio txikia, eta hamaikarekin, berriz, handia.

3. Aizarnazabalgo eskolak (AIZ-001/005)

Eskolan 40 ume inguru elkartzen ziren, neska eta mutil, denak batera. Jesusa Mitxelena zen irakaslea; kaskarrekoak ere ematen zituen. Ikasi erdaraz egiten zuten, baina beraien artean hitz egin, dena euskaraz. Garrantzitsuena "dotriña" izaten zen, hori osorik buruz ikastea. Eskolak goiz eta arratsaldez izaten ziren, eta ostegun arratsaldean jai.

4. Txiriboga auzoko bizikletak (AIZ-001/006)

Aizarnazabalgo lehenengo autoa Azkenportuko batek izan zuen, eta sekretarioak. Kamioiak ere gutxi ziren. Txiriboga auzoan, auzo sarreran, etxe bakoitzak bizikleta bat zuen eskegita. Auzo bakoitzak berea zuen, Zestoara joateko.

5. Zestoako azoka (AIZ-001/007)

Aizarnazabaltik joera handiena Zestoara eta Zarautzera zen. Zestoa hurbilago dago, baina Zarautz handiagoa zen, eta Zarautzera ere sarri joaten ziren. Autobusa ere jarri zuten, baina gehienetan astoz. Joxe Zestoara joaten zen, amarekin, astoa hartuta. Bideak txarrak ziren, baina Zestoarako bidea oraingo berbera zen, eta asfaltatuta. Baratzekoak eta arrautzak saltzen zituzten, azokako postuan.

6. Antzinako Aizarnazabal (AIZ-001/008)

Aizarnazabal oso txikia zen. Etxe gutxi batzuk, taberna pare bat, barberua (taberna batean)... Asteburuetan izaten zen herrirako plana: ilea moztu, mezara etorri, tabernan txikito batzuk hartu...

7. Ibiñarrieta, Arroa eta Txiriboga auzoak (AIZ-001/013)

Ibiñarrieta, Arroa eta Txiriboga, udaletxez Zestoa da, baina elizaz eta bizimoduz Aizarnazabal.

8. Aizarnazabalgo etxe gehienak azken 20 urteotan (AIZ-001/014)

Orain gutxira arte Aizarnazabal oso txikia zen, baserri gutxi batzuk besterik ez. Orain bota dituzte azkenengo baserriak. Etxeak azken 30 urteotan egin dituzte. Orain 580 bizilagun ditu herriak; lehen ere bai, baina baserrietan, eta etxebizitza bakoitzean gehiago.

9. Aizarnazabalgo auzoak (AIZ-001/015)

Aizarnazabalek pare bat auzo ere baditu: Zubialde ingurua, eta batez ere Sarasola baserriaren ingurukoak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com